



Haur poesia

Tradiziozko haur poesia eta kantuak giza-ondarearen parte dira. Herri bakoitzak, ordea, sortu du ondare berezi horren interpretazioa bere gizarte propioari egokituz, bere pentsamolde propioetik sortu duelako. Egokitzapen horretan nabarmentzen dira hainbat aspektu formal, edukiei ematen zaien garrantzia eta hori guztia nola azaltzen duen hizkuntza esamolde propioen bitartez.

Poesiak jolasaren bidea erabili ohi du, batik bat, mugimendua eta keinua eranstean dio bere adierazpide gehienei. Eta haren erritmoa eta doinuaren neurria lagungarri aparta bilakatzen dira hizkuntzaren lorpen-prozesuan. Aldi berean, garapen psikomotrizia ere bultzatzen du, etengabeko jolas baten bitartez. Baina azpimarratuko dugu haur poesia, hizkuntzaren aprendizaiaren barnean, ezinbesteko rola jokatzeko duela eta haren erritmoan, neurrian eta doinuan hizkuntza erabiltzen ikasten duela haurrak. Silaba errepikapenak, lehenengo hitzak, fonema bakoitzaren ahoskapen zehatza areagotu egiten dira poesiaren erritmoan entrenaturiko haurren.

Haur txikien hizkuntz ekoizpenak aztertuz, horietako gehienak, kantitatez bederen, haurren eredu propio bati erantzuten diotela ondorioztatzen dugu, nagusiek dagoeneko barneratu eta bakarrizketa bilakatu dugun eredu, **irudimenezko** eredu, hain zuzen. Testuinguru pertsonal bat eratzen du haurrak eta hizkuntza erabiltzen du horretarako. Hizkuntza, kasu honetan, ez da errealitatea adierazteko tresna bat, baizik eta bere errealitate pertsonal bat eratzeko erabiltzen duen tresna. Errealitate horrek ez du zertan izan behar esperientziak erakusten dizkion pertsona, objektu, eta prozesuez osaturikoa; eremu horretan, errealitatea manipulatzeko gain, soinuak, sekuentzi erritmikoak, hitzak, errimak, istorioak... agertzen dira errealitateak duen indar edo pisu berberaz.

Poemek, errimek, igarkizunek eta, haur literaturak eskaintzen dituen adibide on guztiek hizkuntz eredu hau indartzen dute. Gure azterketaren arabera, ingurune sendo bat eratu beharko genuke hizkuntz eredu honen baitan. Haur literaturan oinarritu beharko dugu curriculumaren zati garrantzitsu bat, eta hitz jolas ugari sortu modu sistematizatuan erabiltzeko.

Poesia jolasen erabilpen sistematizatu bat proposatzen dugu: kantutxoak, mugimenduzko jolasak, hitz-jokoak... Horiek geletan erabiltzeko baliabideak sortu ditugu: ikastaroak, argitalpenak, eta urtean sei bider bidaltzen ditugun *informazio buletin*etan aurkitzen dira egitura hauen erabilpen ereduak.